

PRENTSA OHARRA

AMURRIOKO UDALAK LAU PERTSONA KONTRATATUKO DITU GAZTEEN ENPLEGURAKO 2014-2020 PROGRAMA OPERATIBOAREN BARRUAN

- **“Europako Gizarte Funtsak zure Etorkizunean Inbertitzen du” programak Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Europako Gizarte Funtsaren diru-laguntza izango du.**
- **Programa horren bitartez 4 pertsona jardunaldi osorako kontratatuko dira 8 hilabetez.**

Amurrión, 2018ko urriaren 22an. Amurrioko Udalak, Euskal Enplegu Zerbitzuak-Lanbidek eta Europako Gizarte Funtsak diruz lagundutako bi enplegu programa jarri behar ditu martxan. Bi programak, Gazteen Enplegurako 2014-2020 Programa Operatiboaren barruan gazteak kontratatzeko toki erakundeek aurrera daramatzaten laguntza deialdien barruan daude.

Martxan jarriko diren bi programetako bakoitzak 8 hilabetezko iraupena izango du. “Amurrioko udalerriko naturako pasealekuen kontserbazio, mantentze eta handitze lanak” programarako peoi espezialista kategoriako 3 pertsona kontratatuko dira, eta “Digitalizazio bitartez dokumentazioa eskuratzea hobetzeko” programarako pertsona bat kontratatuko da, artxibategi laguntzaile kategoriarekin.

Enplegu eskaintzan parte hartzeko interesa duten pertsonak baldintza orokor hauek bete beharko dituzte: Amurrión erroldatuta egotea, 16 urtetik gorakoa eta 30 urtetik beherakoa izatea, langabezian eta Euskal Enplegu Zerbitzuan-Lanbiden inskribatuta eta enplegu eskatzaile gisa altan egotea eta Gazte Berme Sistemari izena emanda egotea. Horrez gain, programa bakoitzerako baldintza bereziak ere bete beharko dituzte.

“Amurrioko udalerriko naturako pasealekuen kontserbazio, mantentze eta handitze lanak” programari dagokionez, gutxieneko prestakuntza DBHko graduatua, Oinarrizko Lanbide Heziketa edo Profesionaltasun Ziurtagiria izango da. Kontuan hartuko dira lorezaintza, basogintza edo nekazaritza arloetako prestakuntza eta sektore horietan izandako esperientzia. “Digitalizazio bitartez dokumentazioa eskuratzea hobetzeko” programari dagokionez, gutxieneko prestakuntza gradu ertaineko Prestakuntza Zikloa izango da, informatika ezagutzak izan beharko dira (IT Txartela oinarrizko maila, Word,

Excel eta Acces) eta administrazio lanetako eta informatikako prestakuntza eta esperientzia baloratuko dira.

Aukeraketa, dagokion enplegu eskaintza Lanbiden aurkeztuz egingo da. DSBE-RGI jasotzen duten pertsonen eta 30 urte betetzetik gertu daudenek izango dute lehentasuna.

Kontratazioak azaroan hasiko dira, eta aukeratutako pertsonen 8 hilabeteko kontratua izango dute. Kontratazio horiei aurreikusitako kostua 88.461 eurokoa da, eta Lanbidek 47.307 euro jarriko ditu.